

BIZTANLERIA JARDUERAREN ARABERA (BJA); ALDAKETA NAGUSIAK. 2015.

Helburuak

Eustatek aldaketa metodologiko batzuk egin ditu BJAn. Lan-merkatuak izan duen bilakaera aztertzeari lotuta BJAk dituen helburu nagusiak mantendu ditu; baina beste helburu berezi batzuk ere lortu nahi ditu orain: administrazio iturriekin bat egin; EAEko estatistika-antolaketako beste iturri estatistiko batzuekin koherentzia mantendu; eta eskualdeen, EAEko hiru hiriburuen eta atzerriarren datuak eskuratu.

Lan-merkatuari lotutako administrazio iturriekin bat egin

BJA aldatzeko helburu nagusietako bat hauxe izan da. Izan ere, BJAREN lagina eta Gizarte Segurantzako afiliazio-fitxategiak eta/edo Lanbideko langabetuen fitxategiak lotu nahi izan dira.

Iturriak bateratzea da gakoa, inkestaren eta administrazio desberdinetako erregistroen artean desberdintasunik ez egoteko landunak eta langabetuak neurtu behar direnean. Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) definizioen arabera egiten da neurketa hori.

Laginaren diseinua

BJAREN laginaren diseinua probabilitatezkoa da oraindik. Lurralde historikoen arabera estratifikatzen da, eta Eustaten Etxebizitzen Direktorioan jasotako unitateen zerrenda hartzen du oinarri moduan. Etxebizitza nagusi guztiak daude zerrendan sartuta; hau da, familia baten ohiko bizileku guztiak.

Gainera, beste estratifikazio bat ere egin da: eskualdeak (EAEko estatistika-antolaketako 20 erakunde estatistikoak) eta hiru hiriburuak (Bilbo, Donostia eta Gasteiz).

Lagin hau 13 astetan banatu da, eta asteek ondoko ondoko 7 egun hartzen dituzte. 2015eko urtarrilaren 1ean hasten dira; beraz, urteko egun guztiak modu homogineoan banatzen dira. Horrela zenbatespen hobeak egiten dira, aldi bakoitzean, landunei buruz; baita landunek lan egindako ordu kopuruaren eta horien jarduera garatzen den enpresen ekoizpen-jardueraren arteko koherentzia ere.

Gizarte Segurantzako afiliazioei eta Lanbideko erregistroei buruzko informazio berriena erabili da Etxebizitzen Direktorioko etxebizitza nagusiei dagozkien pertsonak esleitzean. Orduan, bi aldagai horiek erabili daitezke lagina orekatzeko.

Probabilitatezko lagina Cube metodoaren bidez (Déville eta Tillé, 2004) orekatu da. Metodo horrek jatorrizko biztanleen proportzioak mantentzen ditu laginean, diseinua sartzeko probabilitateak kontuan hartuz. Beraz, biztanleen unibertsoa hobeto jasotzen da honako ezaugarrien bidez: Gizarte Segurantzako afiliazioa, Lanbiden langabetuen inskripzioa, nazionalitatea (espainiarra eta atzerritarra), sexua, adin-taldea eta familiaren tamaina.

Laginaren tamaina 6.344 etxebizitzara igo da, eta ez da aurreikusi erantzun ez duten etxebizitzak ordezkatzeari; are gehiago, azken horiek laginean utzi dira harik eta ezarrita dagoen 8 hiruhileko epea igaro ostean laginetik atera arte.

Informazioaren bilketa

BJA internet bidez erantzuteko aplikazio bat garatu da. Erreferentziako astearen hurrengo asteko igandean bakarrik erantzun ahal izango da internet bidez.

Inkestako "erreferentziako astea" izango da igandetik hurrengo larunbatera bitarteko 7 eguneko aldia; horrela, lagineko pertsonak gutxienez egun bat izango dute internet bidez erantzuteko.

Landunek eta langabetuek nahitaez erantzun behar dute, zuzenean; hau da, ezin dute familiako informatzaile baten bidez erantzun. Hiruhileko bakoitzaren hasieran Lanbiden izena emanda duten edo Gizarte Segurantzara afiliatuta dauden pertsonak erantzun behar dute.

Pertsonak afiliazio-fitxategiekin eta erregistratuta dauden langabeekin lotzen direnez, eta inkesta internet bidez bete daitekeenez, unean bertan azter daitezke inkestak bete dituzten pertsonen erantzunak. Ondorioz, datuen koherentzia berehala egiazta daiteke, edo arin jakin daiteke zein diren aurkitzen diren desberdintasunen arrazoiak.

Ustiapena

Laginaren diseinua konplexuagoa dela kontuan hartuta, tabulazioak egiteko eta emaitzak lortzeko behar diren jasokariak kalkulatzeko prozedura ere konplexuagoa da orain; horrez gain, guztirako eta portzentajeen zerrenda zabala sartu da kalibratzeko prozedurarako. Aurreko BJAREN lurralde historiko bakoitzeko adin-taldeen eta sexuaren araberako banaketa gorde da, baina honakoak ere sartu dira: hiriburuen eta lurraldeko gainerako eskualdeen banaketa, inkesta egin den astea eta txanda, familiaren tamaina eta adin aktiboa duten pertsonen kopurua, eta administrazio erregistroetako agerpena. Azken honek atal berezi bat izango du.

Administrazio erregistroen kalibrazioak

Iturri administratiboetatik ateratako marjinalen kalibrazioa egingo zaie BJAREN bidez antzeman diren LANeko landunei edo langabetuei; baina inkesta egin duten Gizarte Segurantzako afiliatuen edo Lanbiden langabetu gisa erregistratuta dauden pertsonen zenbatespenaren kalibrazioa ere egingo da.

Horretarako garrantzitsua da aintzat hartzea erreferentziako datan Euskal Aeko udalerrietan bizi ez diren pertsonen datuak jasotzen direla fitxategi administratiboetan. Horrenbestez,

marjinalak ateratzean datu horiek kanpoan utzi behar dira, BJA etxebizitza nagusiek osatzen dutelako, hau da, EAeko egoiliarren etxebizitzek.

Neurri txikiagoan izan arren, gauza bera egin daiteke Lanbideren bulegoetan erregistratutako langabetuen fitxategietan. Kasu honetan ere azaldu behar da enplegua eskatzen dutenen kategoriako pertsonak bakarrik hartu behar direla, SISPE metodologiaren arabera horiek hartzen direlako langabetu gisa.

Ondorioz, marjinal hauek geratzen dira *–afiliatuta dauden Euskal AEko 16-64 urte bitarteko egoiliarrek hartuta betiere-* hiruhileko bakoitzean:

1. Batez besteko afiliatuak
2. Afiliatuen altak hiruhilekoan
3. Afiliatuen bajak hiruhilekoan
4. Batez besteko afiliatuak, espainiarrak
5. Batez besteko afiliatuak, atzerritarrak
6. Batez besteko afiliatuak, 16-34 urte artekoak hiruhilekoaren erdian
7. Batez besteko afiliatuak, 35-49 urte artekoak hiruhilekoaren erdian
8. Batez besteko afiliatuak, 50-64 urte artekoak hiruhilekoaren erdian
9. Batez besteko afiliatuak, Araban bizi direnak
10. Batez besteko afiliatuak, Bizkaian bizi direnak
11. Batez besteko afiliatuak, Gipuzkoan bizi direnak
12. Batez besteko afiliatuak, gizonezkoak
13. Batez besteko afiliatuak, emakumezkoak
14. Batez besteko afiliatuak, nekazaritzakoak
15. Batez besteko afiliatuak, industriakoak
16. Batez besteko afiliatuak, eraikuntzakoak
17. Batez besteko afiliatuak, zerbitzuetakoak
18. Batez besteko afiliatuak, soldatarik gabeak
19. Batez besteko afiliatuak, soldatapeko finkoak
20. Batez besteko afiliatuak, aldi baterako soldatapekoak eta beste batzuk.

Era berean, ondokoak dira Lanbideko marjinalak *–erregistratuta eta langabezia dauden Euskal AEko 16-64 urte arteko egoiliarrek bakarrik hartuta-* hiruhileko bakoitzean:

1. Erregistratuta dauden langabetuak, batez beste
2. Erregistratuta eta langabezia dauden erroldatuen altak hiruhilekoan
3. Erregistratuta eta langabezia dauden erroldatuen bajak hiruhilekoan
4. Erregistratuta dauden batez besteko langabetuak, espainiarrak
5. Erregistratuta dauden batez besteko langabetuak, atzerritarrak

6. Erregistratuta dauden batez besteko langabetuak, 16-34 urte artekoak hiruhilekoaren erdian
7. Erregistratuta dauden batez besteko langabetuak, 35-49 urte artekoak hiruhilekoaren erdian
8. Erregistratuta dauden batez besteko langabetuak, 50-64 urte artekoak hiruhilekoaren erdian
9. Erregistratuta dauden batez besteko langabetuak, Araban bizi direnak
10. Erregistratuta dauden batez besteko langabetuak, Bizkaian bizi direnak
11. Erregistratuta dauden batez besteko langabetuak, Gipuzkoan bizi direnak
12. Erregistratuta dauden batez besteko langabetuak, gizonetzkoak
13. Erregistratuta dauden batez besteko langabetuak, emakumezkoak

Administrazio erregistroekin bateratzeko taulak

Inkesta bete duten pertsonak Gizarte Segurantzako afiliazio-erregistroarekin lotzen dituen aldagai bat dago, eta horren bidez azterketa taula batzuk egiten dira. Tauletan jasotako datuei esker jakin dezakegu Gizarte Segurantzako afiliatuen artean zenbat pertsona dauden lanean BJA egin den erreferentziako datan (LANEren irizpideak erabiliz), eta LANEren arabera landun horien artean zenbat pertsona ez dauden erregistratuta landun moduan Euskal AEko Gizarte Segurantzako Kotizazio Kontuetan. Pertsona horiek beste autonomia-erkidego edo administrazio iturri batzuetan (MUFACE, MUGEJU eta ISFAS iturrietan, adibidez) egon daitezke erregistratuta, edo agian ez daude inon erregistratuta, denbora laburreko behin-behineko enpleguak edo familia-laguntzari lotutako enpleguak eduki dituztelako.

Eta beste ezaugarri baten bidez jakin daiteke, inkesta egin duten pertsonak Lanbiden langabetu moduan erregistratuta dauden ala ez. Horrela, LANEren definizioaren arabera horietatik zenbat diren langabetuak jakingo dugu, eta Lanbiden erregistratuta ez daudenetik edo langabetu moduan hartzen ez diren kategorietan inskribatuta daudenetik zenbatek betetzen dituzten LANEren langabetu izateko baldintzak.